

# IRISGARRITASUN UNIBERTSALA 2023

## Eskabideari erantsi beharreko dokumentazioa (III. Eranskina)

1. LERROA- Irisgarritasun unibertsaleko plan integralak (PIAU) egitea eta idaztea	
AGIRIAK:	AGIRIAREN GUTXIENENKO EDUKIA:
Indarrean dagoen Irisgarritasun Planari buruzko txosten teknikoa	1.Plana idatzi eta onartu zen urtea. 2.Planaren indarraldia. 3.Planean proposatutako jarduketa guztien betetze-ehunekoa.
Jarduketa-proposamena	1.PIAUaren helburuak eta irismena deskribatzeko eta justifikatzeko memoria. 2.PIAUaren idazketaren azterketa ekonomikoa.
Erakunde eskatzailearen organoaren erabakia, diruz laguntzekoa den jarduketa egitea onartzen duena.	-
2. LERROA- PIAUetan aurreikusitako irisgarritasun-arloko jarduketak gauzatzea	
AGIRIAK:	AGIRIAREN GUTXIENENKO EDUKIA:
Indarrean dagoen Irisgarritasun Planari buruzko txosten teknikoa	1.Plana idatzi eta onartu zen urtea. 2.Planaren indarraldia. 3.Planean proposatutako jarduketa guztien betetze-ehunekoa.
Indarrean dagoen Irisgarritasun Plana 2020. urtea baino lehenagokoa bada, idatzi beharreko PIAUaren helburuak eta irismena deskribatzen eta justifikatzen dituen memoria aurkeztu beharko da, egungoa ordezkatzeko duena.	-
Onartu den eta indarrean dagoen Irisgarritasun Planak dirulaguntzaren eskaeraren xede den jarduketa jasotzen duen zatiaren kopia	Aurkeztutako planaren zatia zer bolumen, fitxa eta orrialderi dagokion sartu behar da, eta argi adierazi behar dira jarduketaren bidez gauzatu nahi diren planean proposatzen diren jarduketak
Erakunde eskatzailearen organoaren erabakia, diruz laguntzekoa den jarduketa egitea onartzen duena.	-
Jarduketa-proposamena. - Hiri-igogailuen eta hiri-plataforma jasotzaileen kasuan, jarduketa-proposamena oinarritzko proiektu bat izango da. - Gainerako kasuetan, dokumentu bakar bat aurkeztuko da, "Jarduketa-proposamena" izenekoa, eta honako atal hauek izan behar ditu:	1.Diruz lagundu daitezkeen jarduketak deskribatzeko eta justifikatzeko memoria: 2.Proposamenaren azterketa ekonomikoa: 3.Jarduketa-proposamenaren planoak: *ikusi xehetasunak III.eranskinean
BAKARRIK Laguntza-eskaeraren xede den jarduketa birgaitze integratuko eremu batean edo eremu degradatu batean badago: aipatutako eremuaren mugari dagokionez jarduketa non gauzatu den azaltzen duen plano	-
BAKARRIK Katalogatutako edo babestutako ingurune/eraikinetako jarduketaren kasuan: eraikina zer babes-araubideri atxikita dagoen egiaztatze beharrezkoa den dokumentazioa, proposatutako obrak egiteko organo eskudunak emandako aldeko txostenarekin edo baimenarekin batera.	-
BAKARRIK Erakunde eskatzailearen biztanleria 2.000 biztanletik beherakoa bada: udal-eroldaren ziurtagiria, eskaera egiteko epearen barruan eguneratua.	-
BAKARRIK Hala badagokio, agindu honen 2. artikuluan xedatutakoan, agiri hauetakoren bat: 1. Esku hartzeko proposamena, 1., 2. eta 3. mailako obrak egitea barne hartzen duena. 2. Erakunde eskatzailearen organoaren erabakia, zeinaz obra horiek agindu honen 9. artikuluan aurreikusitako epea baino lehen egiteko konpromisoa hartzen duen.	-
<b>*Dokumentu bakoitza modu independentean aurkeztuko da, Pdf formatuan, eta atal honetan jasotako dokumentuen zerrendaren arabera behar bezala identifikatzeko moduan izendatuko da.</b>	